

**AKTA, GIZARTE ZERBITZUEN ERAKUNDEARTEKO ORGANOAREN (GZEO) OHIKO
BILKURARENA**

EGUNA: 2018ko azaroaren 27a

TOKIA: EUSKO JAURLARITZAREN BILBOKO EGOITZA (Kale Nagusia 85, A aretoa)

HASIERA-ORDUA: 12:00.

AMAIERA-ORDUA: 13:47

BERTARATUAK:**BATZORDEKO LEHENDAKARIA:**

Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua.

KIDEAK:

- Eusko Jaurlaritzaren ordezkari:
 - Lide Amilibia Bergaretxe andrea, Gizarte Politiketako sailburuordea.
 - Emilio Sola Ballojera jauna, Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.
 - Ernesto Saiz Lanchares jauna, Familia Politikako eta Aniztasuneko zuzendaria.
 - Hernando Lacalle Edeso jauna, Aurrekontuen zuzendaria.
 - Andrés Zearreta Otazua jauna, Funtzio Publikoko sailburuordea.
- Foru-aldundietako ordezkari:
 - Marian Olabarrieta Ibarrondo andrea, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako foru-diputatua.
 - Isabel Sanchez Robles andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako foru-diputatua.
 - Maite Peña López andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako foru-diputatua.

Horiez gain, honako hauek ere bertaratu ziren bilerara: Miren Saratxaga andrea, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen zuzendaria, Marian Olabarrieta Ibarrondo andrearen ordezkaria, eta Sergio Murillo Corzo jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Pertsonen Autonomia Sustatzeko zuzendari nagusia, Isabel Sánchez Robles andrearen ordezkaria.

- EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteko ordezkari:
 - María Natividad López de Munáin Alzola andrea. Burguko alkatea.
 - Eneko Maioz Ganboa jauna. Oresako alkatea.
- Gonbidatu gisa bertaratu da: Dorleta Goiburu, EUDELeko teknikaria.
- Ezin etorria adierazi du Sestaoko alkate eta EUDELeko ordezkari Josu Bergara López jaunak.

GAI-ZERRENDAA

1. Aurreko bilerako akta irakurtzea eta onartzea (2017/12/18).
2. Foru Aldundiek iragarri dituzten adingabeen babes sistemak berraztertze prozesuetan GZEAOk parte hartzea eta horiek ikuskatzea (82/2018 Legez besteko proposamena, Eusko Legebiltzarrak onartua).
3. Kontzertazio sozialeko dekretua: ekarpenak Eusko Jaurlaritzak mahaigaineratutako proposamenari.
4. Adinekoentzako bizitegi-zentroen dekretua: hura indarrean sartzeak izango duen inpaktu ekonomikoa.
5. Atzeritar adingabeak EAEra aldi batez lekualdatzeko programei buruzko dekretu-proiektua aurkeztea, aztertzea eta txostena ematea.
6. «Arreta goiztiarraren arloko lanbide-kualifikazioa egiaztatzeko balio duten tituluen, ikasketen eta lanbide-gaitasunen katalogoa ezartzen duen dekretu-proiektua» aurkeztu, aztertu eta txostena ematea.
7. Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren jarraipena.
8. Galderak eta eskaerak.

Aipatu pertsonak bertaratuta, hasiera eman zaio bilerari.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak, Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoko presidente gisa, ongietorria egin die bertaratutakoei.

Jarraian, gai-zerrendan jasotako kontuak jorratzeari ekin zaio.

1. puntua. Aurreko bilerako akta irakurtzea eta onartzea (2017/12/18).

Bertaratutako pertsona guztiak ados daudela, 2017ko abenduaren 18ko bilerako akta onetsi da.

2. puntua. Foru Aldundiek iragarri dituzten adingabeen babes sistemak berraztertze prozesuetan GZEAOk parte hartzea eta horiek ikuskatzea (82/2018 Legez besteko proposamena, Eusko Legebiltzarrak onartua).

Emilio Sola jaunak, GZEAOk idazkaria, legez besteko proposamen horren edukiak azaldu ditu (82/2018 zenbakia). Eusko Legebiltzarrean eztabaidatu eta gero, honela geratu zen horren testua:

“Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak Jaurlaritzari ematen dizkion funtzioak betez, eta lege horrek berak gizarte-zerbitzuen arloko eskumenak dituzten herri-administrazioen arteko lankidetzak eta koordinazioa izateko betebeharraren kariaz, eta Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoaren bidez eta Goi Ikuskaritzaren gainbegiratzearen bidez, parte har dezala eta ikuska ditzala foru-aldundiek adingabekoen babeserako sistemaren inguruan iragarri dituzten berraztertze-prozesuak, errespetatuz foru-aldundiek zerbitzuen antolaketan dituzten eskumen-esparrua, parte hartuz kalitatezko arreta, gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren kohesioa eta gizarte-zerbitzuen eskubide subjektiboaren gauzatzea bermatzeko deliberazioetan eta erabakietan eta jarraikiz haur eta nerabeen interes gorenaren printzipioari.”

Isabel Sánchez Robles andreak uste du legez besteko proposamenak ekimen politikoak direla, eta, arreta-ereduari dagokionean, Estatuak duela eskumena. Adierazi du Bizkaiko Foru Aldundiak lan-karga itzela duela bere babespean dituen adingabeen kopurua eta haiekin aritzearen konplexutasuna direla eta.

Marian Olabarrieta andreak adierazi du Arabako Foru Aldundian jaso dutela Legez Besteko Proposamenaren edukien berri, eta, GZEAOk horren inguruan zerbait antolatzea erabakitzen badu, behar den orotan hartuko dutela parte.

Beatriz Artolazabal andreak esan du berak zuzentzen duen Sailaren xedea legez besteko proposamen guztiak betetzea dela beti. Gero, gehitu du beharrezkoa dela eredia berraztertzea, Madrildik datozen lege-aldaketek baldintzatzen baitute.

Marian Olabarrieta andreak azaldu du Oviedoko Unibertsitatekoak baliabideei eta egin litezkeen hobekuntzei buruzko ikerlan bat egiten ari direla Arabako Foru Aldundiarentzat, eta osatuta dagoenean GZEAOri bidaliko diotela.

3. puntua. Kontzertazio sozialeko dekretua: ekarpenak Eusko Jaurlaritzak mahaigaineratutako proposamenari.

Lide Amilibia andreak gogorarazi du gaur arratsaldean bilduko dela Elkarriketa Zibilerako Mahaia, eta mahai horretan ordezkaritza duen hirugarren sektore sozialak ekarpenak egin dizkiola kontzertazio sozialeko dekretuaren zirriborro-testu berriari.

Adierazi du, ordea, mahai horretako gainerako eragileek ez dutela inolako ekarpenik egin. Gaineratu duenez, litekeena da hirugarren sektoreak testua batzarrean lantzea proposatzea, eta gainerako erakundeei galdetu die ea horrekin ados dauden ala ez.

Marian Olabarrieta andreak esan du Arabako Foru Aldundian ados daudela proposatutako testuarekin.

Dorleta Goiburu andreak adierazi du Eudeli arauemaileegia iruditzen zaiola testua, eta 3. kapitulua arindu beharra dagoela.

Sergio Murillo jaunak uste du dekretuak sinpleagoa izan beharko lukeela eta Hezkuntza Sailaren 1986ko dekretu bat aipatu du adibide gisa, bere ustetan eredu egokia izan baitaiteke. Ahalik eta gehien sinplifikatzeko eta ekarriko lukeen inpaktu ekonomikoa zenbatesteko eskatu du.

Isabel Sánchez Robles andreak azaldu du Bizkaiko Foru Aldundiak ezin duela proposatutako arau-testua onartu, zehatzegia delako. Bakoitzak dagokion funtzio betearazlea garatu behar du, baina lege-esparruak ez du horren murriztailea izan behar. Ez dute idatzizko alegaziorik aurkeztu, beren iritzia bilera honetan eman nahi zutelako.

Lide Amilibia andreak adierazi duenez, Eusko Jaurlaritzak GZEA Oren parte diren instituzio guztiei helaraziko die Hirugarren Sektore Sozialak Elkarriketa Zibilerako Mahaian gai honen inguruan esango duena, eta horren ondoren proposamen bat egingo die instituzioei.

4. puntua. Adinekoentzako bizitegi-zentroen dekretua: hura indarrean sartzeak izango duen inpaktu ekonomikoa.

Lide Amilibia andreak azaldu du hiru foru aldundiei informazioa eskatu zitzaizela arau hau indarrean sartzeak zer-nolako inpaktu ekonomikoa izango zukeen jakiteko, eta hirurengandik jaso dutela erantzuna. Adierazi duenez, datu horiek kontuan hartu eta memoria ekonomiko bat osatuko dute, hasiera batean Kontrol Ekonomikoko Bulegoari bidali zitzaionaren osagarria; izan ere, bulego horretatik erantzun zuten zehatzago aztertu behar zela adinekoentzako bizitegi-zentroen dekretu honek zer-nolako inpaktu ekonomikoa izango duen.

5. puntua. Atzerritar adingabeak EAEra aldi batez lekualdatzeko programei buruzko dekretu-proiektua aurkeztea, aztertzea eta txostena ematea.

Ernesto Sainz Lanchares jaunak azaldu du puntu hau, eta honako atal hauetan banatu du informazioa:

I.- SARRERA ETA TESTUINGURUA (ARAU EKIMENA SUSTATZEA BEHARREZKOA ETA EGOKIA DELA JUSTIFIKATZEA).

Hau da arau-proposamen honen lege-oinarria: 4/2000 Lege Organikoa, Atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzkoa, eta atzeritar horiek gizarteratzeari buruzkoa, zeina 2/2009 Lege Organikoaren bidez aldatu baitzen; izan ere, lege organiko horren erregelamendua onartzera etorri zen apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretua (aurrerantzean, ATZE), eta haren 187. eta 188. artikulua nabarmendu behar dira. Eta, are zehatzago esanda, adingabeak babesteko eremuan eskuduntza duen organo autonomikoari zuzentzen zaion aginduan –atzeritar adingabeak nora lekualdatu, lurralde horretako organo autonomikoa izango da eskuduna–. Agindu horren arabera, dagokion organo autonomikoak txosten bat egin behar du sustatutako lekualdatze-programa bakoitzari buruz.

Txosten hori, EAEn kasuan, foru-aldundiei dagokie, arau hauek ezarritako eskumen-esparruaren arabera: Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa otsailaren 18ko 3/2005 Legea (aurrerantzean, HNL) eta gaiari buruzko gainerako legeria, oro har eta egoki aplikatu beharrekoa.

II.– DEKRETU-PROIEKTUAREN EDUKIA.

1.- Atzeritar adingabeak Espainiara aldi batez lekualdatzeko programak ATZEren 187. eta 188. artikuluetan daude araututa, zehazki.

2.- Hain zuzen ere, 187. artikuluan, programa humanitarioen esparruan egindako aldi baterako lekualdatzeek bete beharreko gutxieneko baldintzak arautzen dira. Programa horiek administrazio publikoek, irabazi-asmorik gabeko elkarte edo fundazioek edo adingabe horien guraso-ahala edo tutoretza dutenekin loturarik ez duten erakundeek sustatzen eta finantzatzen dituzte. Aldi baterako egonaldiak dira, mediku-tratamenduak jasotzeko edo oporraldia igarotzeko xedez eginak.

3.- Hala, lekualdatze horiek egin ahal izateko, 187. artikuluan bertan, aldeko txostena eskatzen da, atzeritar adingabe horiek egongo diren lurraldeko gobernuaren ordezkariordeak edo probintzia bakarreko autonomia-erkidegoko gobernuaren ordezkariak emandakoa; orobat, eta txosten hori egin aurretik, adingabeak babesteko arloan eskumena duen organo autonomikoak programari buruzko iritzia adierazteko txostena eman behar duela arautzen da.

4.- Bestalde, 188. artikulua eskolatze-helburuekin egindako aldi baterako egonaldiak xede dituzten aldi baterako lekualdatzeei buruzkoa da. Kasu horretan ere aplikatuko da 187. artikuluan ezarritako prozedura.

5.- Aurreko puntuetan aipatutako arau-esparruaren barruan, eta kontuan izanik adingabeen interes goren lehentasuntzat hartzea botere publikoek haur eta nerabeekiko duten jardunaren printzipio gidarietako bat dela, Adingabekoen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren (urtarrilaren 15eko 1/1996) 11.2 artikuluan ezarritakoaren babesean –Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legean idatzita bezala–, proposatutako araudiaren

premisetako bat da, zalantzarik gabe, atzerritar adingabeen aldi baterako lekualdatzea dakarten programak humanitarioak direla beti; eta, inolaz ere eta inondik inora ere ez direla familia-harrerako neurri bat edo neurri hori garatzeko modalitate bat.

6.- Aurreko guztiaren oinarria da ahalik eta segurtasun juridiko handiena ematea programa horien esparruan Euskal Autonomia Erkidegora lekualdatzen diren atzerritar adingabeei eta haien familiei, eta lekualdatutako haurrek eta nerabeek jatorrizko herrialdean errotuta eta beren familiarekin harremanetan eta lotuta mantentzen direla bermatzea. Eta, horrenbestez, haurrak eta nerabeak babesteko sistemari buruzko ordenamendu juridikoaren aurkakoa den praktika bidegabe oro prebenitzeko bermeak indartzen laguntzea.

7.- Aurrekoetatik abiatuta, bikoitza da dekretu honen xedea, Eusko Jaurlaritzak haurren eta nerabeen arloan duen eskumen legegilea baliatuz emango baitu.

8.- Alde batetik, xehetasunez eta espresuki zehazten behar da zer-nolako betekizun teknikoak bete behar dituzten atzerritar adingabeak Euskal Autonomia Erkidegora aldi batez lekualdatu nahi dituzten programa humanitarioek eta zein diren programa horiek garatzeko bete behar diren baldintzak.

Betekizun eta baldintza horiek, nolanahi ere, foru-aldundiek horrelako programak ebaluatzen eta baloratzen daukaten eskarmentu handia kontuan hartuta ezarri dira, eta kontuan hartu dira, orobat, Euskal Autonomia Erkidegora lekualdatzen diren adingabeen zaintza betetze aldera programa horietan parte hartzen duten eta are, Estatuko legeriak bide ematen duen kasuetan, programa horiek sustatu ere egiten dituzten pertsonen eta familien esperientzia.

9.- Eta, halaber, arautzen du zer jarduera-prozedura bete behar duten foru-aldundiek, prozedura bera erabiliko baitute hiru lurralde historikoek ATZEren 187. artikulua araututako txostena egiteko; artikulua horren arabera, autonomia-erkidego bakoitzean adingabeak babesteko arloan eskumena duten erakunde publikoei dagokie txosten hori egitea.

10.- Horren guztiaren ondorioz, proposatutako dekretua bost kapitulutan banatu da, edukien arabera, eta kapitulu bakoitzak hauek lantzen ditu:

- **I. kapituluan**, atzerritar adingabeak EAEra aldi batez lekualdatzeko programak arautzen dituzten xedapen orokorrak biltzen dira, bai eta foru-aldundiek programa horien esparruan bete behar duten jarduera-prozedura ere.
- **II. kapituluak** zehazten du atzerritar adingabeak aldi batez Euskal Autonomia Erkidegora lekualdatzeko zein programari aplikatuko zaien dekretua, eta haietako bakoitzak, helburua zein duen kontuan hartuta, bete behar dituen baldintza teknikoak ezartzen ditu.
- **III. kapituluan**, aldi batez lekualdatzeko programak garatzeko zer baldintza eskatuko diren azaltzen da, eta, zehazki, honako alderdi hauek: (i) programetan

parte hartzen duten atzeritar adingabeei lagun egitea; (ii) atzeritar adingabeen beraien egonaldia EAEn, bai pertsona horien aldi baterako zaintza duten pertsona edo familiekin batera, bai egoitza kolektiboetan; eta (iii) aldi baterako zaintza beren gain hartuko duten pertsonak.

- **IV. kapituluak** barruan hartzen du aldi batez lekualdatzeko programa garatzearekin ados dauden ala ez adierazteko txostena egiteko foru-aldundiek jarraitu behar duten jarduera-prozeduraren oinarritzko araudia; txosten horrek, betiere, kontuan izan beharko du aldi batez lekualdatzeko programa dekretu honetan ezarritako betekizun teknikoetara eta baldintzetara ondo egokitzen dela.
- Eta, **V. kapitulan**, aldi batez lekualdatzeko programak sustatzen dituzten pertsonen betebeharrak arautzen dira, hala nola: (i) trebakuntza arlokoak; (ii) lekualdatutako atzeritar adingabeen jarraipena; (iii) aldi batez lekualdatzeko programaren amaierako azalpen-memoria, eta (iv) aldi batez lekualdatzeko programa bat sustatzen duten pertsona fisiko edo juridikoek zer betebeharrak hartzen duten bere gain foru-aldundiekiko.

Azalpena bukatzean, Sergio Murillo jaunak esan du urte eta erdi baino gehiago daramatela gai hau modu egokian lantzen eta prozesuarekin pozik dagoela. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak eta elkarteek egindako lana aintzatetsi du.

Segidan, organoko presidenteak nahitaezko txostenaren mende jarri du Atzeritar adingabeak EAEra aldi batez lekualdatzeko programei buruzko dekretu-proiektuaren testua, kontsulta-izapidean zehar jasotako alegazioetako batzuk txertatu ondoren. Bozketa egin da eta nahitaezko txostena eman, bertaratutako kide guztiak ados daudela proposatutako testuarekin.

6. puntua. «Arreta goiztiarraren arloko lanbide-kualifikazioa egiaztatzeko balio duten tituluak, ikasketen eta lanbide-gaitasunen katalogoa ezartzen duen dekretu-proiektua» aurkeztu, aztertu eta txostena ematea.

Lide Amilibia andrea hasi da puntu hau azaltzen, baina Ernesto Sainz Lanchares jaunak ere hartu du parte zati batean. Hona hemen edukia:

I.- SARRERA ETA TESTUINGURUA (ARAU EKIMENA GAUZATZEA BEHARREZKOA ETA EGOKIA DELA JUSTIFIKATZEA).

1.- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak (aurrerantzean, GZL) esanbidez jasotzen du arreta goiztiarrerako esku-hartze sozialeko zerbitzua, EAEko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan sartzen diren zerbitzuen artean.

2.- Halaber, 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, «Arreta goiztiarreko esku-hartze sozialaren zerbitzua» jasotzen eta definitzen du I. eranskinean eta, bereziki, 2.7.4 zenbakiarekin kodetutako zerbitzu eta prestazio ekonomikoen fitxan, aipatutako GZLren 23. artikuluan eskatutako edukiari erantzunez.

3.- Aurreko arauzko xedapenei hertsiki lotuta, 13/2016 Dekretuak, otsailaren 2koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Integralari buruzkoak (aurrerantzean 13/2016 Dekretua) helburutzat du Euskal Autonomia Erkidegoko arreta goiztiarreko esku-hartze integrala arautzea erantzukizun publikoaren esparruan ematen den esku-hartzeari dagokionez, horretarako eredu bat antolatzeko funtsezko elementuak ezarrita, arreta goiztiarreko zerbitzuak ematen dituzten osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen arloetako sistemen jardunak koordinatze aldera.

4.- Helburu horrekin, 13/2016 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoaren ildotik, Arreta Goiztiarraren egitura funtzionalean bi talde mota sartzen dira: Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldeak (AGBT) eta Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Taldeak (AGET). Azken horien arautzea 13. artikuluan xedatzen da.

5.- Zehazki, aipatutako 13. artikulua bosgarren apartatuan, AGETek zerbitzu hauek eskainiko dituztela ezartzen da: psikomotrizitatea, psikoterapia, fisioterapia, logopedia, gizarte-lana, psikopedagogia, psikologia, terapia okupazionala, gizarte-hezkuntza eta haurraren garapenerako egokiak izan daitezkeen beste batzuk.

6.- Horren harira, 13/2016 Dekretuaren 22. artikulua arreta goiztiarraren eremuan zerbitzuak ematen dituzten zentroetako langileek bete beharreko eskakizunak zehazten ditu: Haurren Garapenerako eta Arreta Goiztiarreko Zentro bakoitzean AGET bat egongo da. Talde hori gutxienez bi pertsonak osatu beharko dute, eta honako eginkizun hauen artetik gutxienez hiru betetzeko titulazio edo kualifikazio egokia duten profesionalak izango dira:

- a) Psikomotrizitatea.
- b) Psikoterapia.
- c) Fisioterapia
- e) Logopedia
- e) Gizarte-lana.

Puntu honetan, **berebizikoa da azpimarratzea** goian zerrendatutako funtzio guztiak AGET batek eskaini beharreko zerbitzuekin bat datozen arren, ez direla AGET batek eskaini ditzakeen zerbitzu guztiak. 13/2016 Dekretuaren 13.5 artikuluan jasota dago zerbitzuen zerrenda osoa, eta, besteak beste, terapia okupazionala eta gizarte-hezkuntza ere aipatzen dira.

Halaber, eransten du haien diziplinari dagokion kualifikazioa edukitzeaz gainera, arreta goiztiarrean espezializatutako prestakuntza edo esperientzia espezializatua izan beharko dutela.

7.- Amaitzeko, 22.1 artikularen azken paragrafoak hau ezartzen du: Lanbide-kualifikazioa egiaztatzeko balio duten tituluen, ikasketen eta lanbide-gaitasunen katalogoa (artikulu horren aurreko paragrafoan deskribatutako eginkizunak garatzeko lanbide-gaitasunaz ari da) Eusko Jaurlaritzak finkatuko du, Arreta Goiztiarreko Erakundearteko Batzorde Teknikoaren irizpide eta gomendioetan oinarrituta, Arreta Goiztiarreko Erakundearteko Kontseiluak aldeztatik egindako proposamenak kontuan hartuta, eta betiere 9.2 artikularen h) apartatuan eta 10.2 artikularen e) apartatuan xedatutakoari jarraikiz.

8.- Hori dela eta, 13/2016 Dekretuaren 22.1 artikuluko azken paragrafoak ezartzen duenarekin bat, eta goian adierazitako funtzioak betetzeko asmoz:

- Arreta Goiztiarrerako Erakundearteko Batzorde Teknikoak, 2017ko maiatzaren 10eko bileran, zenbait irizpide eta gomendio onartu zituen arreta goiztiarraren arloko kualifikazio profesionala egiaztatzeko balio duten tituluen, ikasketen eta konpetentzia profesionalen katalogoa egiteko eta onartzeko edukien eta nondik norakoen inguruan.
- Geroago, Arreta Goiztiarrerako Erakundearteko Kontseiluak, aurreko irizpideak eta gomendioak aztertu eta ebaluatu ondoren, arreta goiztiarraren arloko lanbide-kualifikazioa egiaztatzeko balio duten tituluen, ikasketen eta lanbide-gaitasunen katalogoari buruzko proposamen bat onartu zuen, 2017ko urriaren 10ean egindako bileran.

II.– DEKRETU-PROIEKTUAREN EDUKIA.

Dekretu hau Arreta Goiztiarrerako Erakundearteko Kontseiluak onartutako proposamena oinarri hartuta idatzi da, eta egiturari dagokionez, 6 artikulua eta azken xedapen batean banatu da edukia.

- **1. artikuluan**, Dekretuaren helburua zehazten da –zertan datzan, alegia–: arreta goiztiarraren arloko lanbide-kualifikazioa egiaztatzeko balio duten tituluen, ikasketen eta konpetentzia profesionalen katalogoa ezartzea.
- **2. artikuluan** ezartzen da dekretuaren xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoko Haurren Garapeneko eta Arreta Goiztiarreko Zentro guztiei aplikatuko zaizkiela, salbuespenik gabe.
- **3. artikuluan** zehazten da AGET bateko partaide izan nahi duten arreta goiztiarraren arloko profesionalek zer unibertsitate-titulu eta gradu-titulu izan behar duten, eta hala eskatzen denean, horiek osatzeko zer titulu beharko dituzten, egiaztatu ahal izateko, kasuan-kasuan, psikomotrizitatean, psikoterapian, fisioterapian, logopedian edo gizarte-lanean aritu daitezkeela.
- **4. artikuluan**, AGET bateko partaide izan nahi duten profesionalei ezar dakiekeen beste eskakizun bat garatzen da: arreta goiztiarrean

espezializatutako prestakuntza egiaztatu beharko dute, edo bestela, gaian espezializatutako esperientzia.

- **5. artikuluan**, aurreko puntuan aipatutako espezializatutako prestakuntza egiaztatzeke bete beharreko eskakizunak ezartzen dira.

5. artikuluko edukiekin hertsiki lotuta, azpimarratzekoa da Gizarte Politiketako Sailburuordetza eta Unibertsitate Sailburuordetza UPV/EHurekin harremanetan eta bilerak egiten aritu direla, Unibertsitateak arreta goiztiarren inguruko berariazko graduondoko prestakuntza-programa bat antolatu eta martxan jar dezan. Prestakuntza horrek izaera teoriko-praktikoa izango luke eta Dekretu-proiektu honetan eskatutako betekizunekin bat etorriko litzateke.

UPV/EHUtik begi onez ikusi dute proposamena eta arreta goiztiarrari buruzko graduondoko prestakuntza berariazkoa eskaintzeko aukera aztertzen eta lantzen ari dira. Berezko masterra izango litzateke.

- Eta **6. artikuluan** zehazten da interesdunek nola egiaztatu dezaketen lan-eremu horretan emandako zerbitzuengatik lortutako esperientzia espezializatua dutela.

Dekretu-proiektuaren edukiak azaltzen bukatzean, Lide Amilibia andreak aipatu du bilera tekniko ugari egin direla eta adostutako arau-proiektua horien emaitza dela.

Horren ondoren esan du EHurekin lehenengo harremanak izan dituztela arreta goiztiarrari buruzko graduondoko ofizial bat antolatzeke.

Ernesto Sainz Lanchares jaunak gaineratu du arauaren izapidetzea aldatu egin zutela: hasierako ideia agindu gisa izapidetzea zela, baina gero dekretua izatea hobe zela erabaki zutela. Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuaren 22. artikuluan, “Langileei dagozkien betekizunak” izenekoan, jasotako zenbait konturen aipua egin du.

Marian Olabarrieta andreak gaian egindako lana aitortu die, baina, horrekin batera, arreta goiztiarraren finantzaketaren inguruko adierazi ditu, aurrekontua bikoiztu behar izan baitute. Uste du Osasuneko eta Hezkuntzako sailek ekarpen handiagoa egin beharko luketela eta Arabako Foru Aldundiak, berriz, egun egiten duena baino txikiagoa, gehiegi ekartzen baitu orain, eta konpentsatu beharra baitago.

Isabel Sánchez Robles andreak Bizkaian gertatzen den arazo baten berri eman du: haurrek 6 urte betetzen dituztenetik aurrera gurasoek ez dute laguntzarik jasotzen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saitetik eta, ondorioz, guraso taldeek Bizkaiko Foru Aldundiaren esku-hartzea eskatzen dute. Arrakala bat ikusten du lantaldeak ikusitako arreta goiztiarreko beharren eta sistemak horiei aurre egiteko duen gaitasunaren artean.

Sergio Murillo jaunak erantsi du batzordearen bileran sistema bakoitzak bere kostuak aurkeztu zituela. Bigarren bileran, 2019ko urtarrilean egitekoa baita, sistema bakoitzak haur bakoitzeko gastuaren kalkulua aurkeztu beharko du, ondoren alde politikoak

erabaki dezan. Horrez gain, esan du Bizkaiko Foru Aldundiari izugarri igo zaiola batez besteko gastua, eta adierazi du beste talde bat ari dela preskripziorako eskuliburua prestatzen. Dekretuari dagokionez, berriz, hau da bere iritzia: xedapen iragankor bat gehitzeko aukera baloratu beharko litzateke, egun lanean diharduten eta esperientzia eta/edo prestakuntzari loturiko betekizunak betetzen ez dituzten pertsonen begira. Bestalde, kontraesana ikusten du dekretu-proiektuaren sarreraren (horretan esaten baita AGETetan beste zerbitzu batzuk ere eskain daitezkeela) eta 3.2. artikuluaaren artean, azken horrek honakoa baitio: “Dekretu honetan aipatzen diren zerbitzuak baino ezingo dituzte eman”.

Ernesto Sainz Lanchares jaunak azaldu du lehen begiratuan ez duela kontraesanik ikusten, baina hobeto aztertuko dutela.

Botazioa egin da eta ahoz batez onartu da txostena ematea.

7. puntua. Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren jarraipena

Emilio Sola jaunak azaldu du puntu hau. Hasteko, prozesuaren xedea zehaztu du:

- **lantalde teknikoaren dinamizatzea**, ardatz hartuta “EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019” delakoaren jarraipena eta aldizkako ebaluazioa egiteko metodologia,
- **eta 2016 eta 2017rako aurreikusitako ekintzen jarraipen-txostena** egitea.

Honako **helburu** hauekin:

- Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren aldizkako ebaluazioa nola eta noiz egin zehazten duen planteamendu politikoari jarraitzea.
- 2016 eta 2017rako aurreikusi ziren ekintzak bete diren ala ez ikustea, eta horien garapenaren inguruko balorazio labur bat egitea.
- Plan estrategikoko 2016 eta 2017 urteetarako ekintzak garatzean denbora honetan agertuz joan diren zailtasunetan sakontzea.
- Planaren barruan epe ertain eta luzean bultzatuko diren ekintzei buruzko informazioa maneiatzea.

Jarraipena egin eta emaitzak aurkezteko garaian kontuan hartu beharko da planaren testuan ekintza bakoitzaren lehentasun-mailari, ekintzen gaineko ardurari (lidergoa) eta lehentasunezko gaiei buruz aipatzen dena. Horrek esan nahi du:

- GZES garatzeko ezinbestekotzat jotzen diren ekintzei (planean atzealde urdina dutenak) eta 1. lehentasuna mailan sartuta daudenei arreta berezia eman eta zehaztasun handiagoz aztertu behar direla.
- Ekintza bakoitzaren jarraipena egitean ekintza horiei lotuta dauden lehentasunezko elementuak kontuan hartzea; hau da, horiei zentzua ematen dietenak.

- Euskal administrazio publikoko maila desberdinetako erakundeek elkarlanean sustatu behar dituzten ekintzei arreta berezia eman eta zehaztasun handiagoz aztertu behar direla, gainerakoak alde batera utzi gabe.

Eusko Jaurlaritza buru den ekintzei dagokienez (plan estrategikoko 3.5 puntuan jasota dator horien zenbateko ekonomikoa), jarraipen-txostenak barnean hartu beharko du, baita ere, benetan egindako gastuari buruzko informazioa.

EGINDAKO LANA:

1. Lantaldeak egindako bilera: 1. bilera, maiatzaren 24an Gasteizen egindakoa.

- Bertaratu ziren:

Bizkaiko Foru Aldundia:

- Sergio Murillo Corzo jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Pertsonen Autonomia Sustatzeko zuzendari nagusia.
- Elena Iturizaga Larrabeiti andrea, Zentroen Zerbitzuko burua.

Gipuzkoako Foru Aldundia:

- Jon Iribar Goenaga jauna. Plangintzako, Ituneko eta Prestazio Ekonomikoetako Zerbitzua

Arabako Foru Aldundia:

- Miren Saratxaga de Isla andrea. Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.
- Eva Iturritxa Vélez de Elburgo andrea. Gizarte Zerbitzuetarako Idazkaritza

EUDEL

- Dorleta Goiburu Muruaga andrea, teknikaria

Eusko Jaurlaritza:

- Emilio Sola jauna, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.
- Yolanda Mentxaka andrea. Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzako teknikaria

LAGUNTZA TEKNIKOA: Jaime García jauna. EDE fundazioa

Landutako gaiak

1. Lan-prozesua aurkeztea eta baliozkotzat jotzea.

2. Galdetegiak bidali eta jasotzea:

Ekainean galdetegi batzuk bidali ziren informazioa biltzeko foru aldundietatik eta Jaurlaritzatik. Galdetegiak beteta helarazi dituzte hiru foru aldundietatik eta Jaurlaritzatik.

3. Egindako elkarrizketak:

Bi elkarrizketa egin dira, bata Eusko Jaurlaritzarekin eta bestea Bizkaiko Foru Aldundiarekin, galdetegietako informazioaren bilketa errazteko.

4. Udalekin antolatutako eztabaida-taldeak:

Hiru eztabaida-talde osatu dira udal erakundeekin. Horretarako, lurralde bakoitzeko zenbait udalerritako ordezkari politiko/teknikoei biltzeko deia egin zaie:

- Araban, azaroaren 14an, asteazkena, erakunde hauetako ordezkariekin:

Amurrio / Asparrena / Arabako Lautada / Laudio / Vitoria-Gasteiz / Arabako Foru Aldundia.

- Gipuzkoan, azaroaren 15ean, osteguna, erakunde hauetako ordezkariekin:

Andoain / Beasain / Donostia / Elgoibar / Errenteria / Hernani / Irun / Zarautz.

- Bizkaian, azaroaren 20an, asteartea, erakunde hauetako ordezkariekin:

Arrigorriaga / Barakaldo / Bilbo / Erandio / Ermua / Getxo / Gueñes / Enkarterrietako Mankomunitatea / Durangoko Mankomunitatea / Mungialdeko Mankomunitatea / Portugalete / Santurtzi / Sestao.

HURRENGO URRATSAK:

- Elkarriketak egitea Eusko Jaurlaritzarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin (Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna sustatzeko Saila), galdetegietan jasotzeko informazioaren inguruko kontu batzuk berrikusteko.
- Jarraipen-txostenaren zirriborroa idaztea.
- Lantaldeari deialdia egitea, jarraipen-txostena aztertu eta ixteko.

Maite Peña andreak azaldu du Gipuzkoako Foru Aldundiak bigarren mailako arretaren mapa egin duela eta Gipuzkoako udalek, aldiz, lehen mailakoa. Aurten aurkeztuko dutela gehitu du. Aldeek 2018ko diagnostikoa adostu dute, EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa oinarri hartuta eta eskaeraren bilakaera kontuan hartuta.

8. puntua. Galderak eta eskaerak.

Beste galderarik edo eskaerarik ez dagoenez, eta bertaratu diren pertsonei eskerrak emanez, presidenteak bilera amaitutzat eman du 13:47an.

Idazkaria

Presidenteak

Sinadura: Emilio Sola Ballojera jauna
andrea

Sinadura: Beatriz Artolazabal Albeniz